

# durango

gustura, a tu gusto




# TURISMO DURANGO

## DURANGOKO TURISMO BULEGOA
## OFICINA DE TURISMO DE DURANGO

**KURUTZIAGA, 38**
**(34) 94 603 39 38**

TURISMO@DURANGO.EUS
WWW.TURISMODURANGO.NET

**ESKURATU JOKOA TURISMO BULEGOAN**

**RECOGE TU JUEGO EN LA OFICINA DE TURISMO**

### BERRIA!
## SALTOKA, DURANGO BISITATZEKO JOKOA

**Jokoa mapa batez, kartez eta pegatinez osaturik dago eta Durangoko gune desberdinetan kokatutako altxorrak topatzean datza. Esperientzia hau familian egitekoa da.**

### ¡NUEVO!
## SALTOKA, EL JUEGO PARA VISITAR DURANGO EN FAMILIA

Juego compuesto por un mapa, cartas y pegatinas, consiste en visitar los lugares más emblemáticos de Durango y buscar los tesoros escondidos. Se trata de una experiencia para realizar en familia

ESKA EZAZU AUDIOGIDA TURISMO BULEGOAN

## IBILBIDE AUDIOGIDATUAK

Gure iragana ezagutu eta Durangotik buelta polit bat emateko, audiogida bidezko hiru ibilbide proposatzen dizkizugu. Batean, gure historia eta ondarea ezagutuko dituzu, bigarrenean 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketak Durangon utzi zituen aztarnen berri izango duzu, eta hirugarrenean Kurutziagako gurutzea eta Kurutzesantu Museoa ezagutuko dituzu.

RECOGE TU AUDIOGUÍA EN LA OFICINA DE TURISMO

## RECORRIDOS AUDIOGUIADOS

Te proponemos 3 recorridos audioguiados en los que recrearás nuestro pasado y disfrutarás de un bonito paseo por Durango. En el primero conocerás nuestra historia y patrimonio, en el segundo las huellas dejadas por el bombardeo de Durango el 31 de marzo de 1937 y a través del tercero conocerás los secretos de la Cruz de Kurutziaga y del Museo Kurutzesantu.

GEREDIAGA ELKARTEA: 94 681 80 66

## BISITA GIDATUAK

Taldean bazatozte eta gidari profesional batekin bisita gidatua egin nahi baduzue, honako hau da zuentzako jarduerarik aproposena.

Bisita gidatuen karta aberatsak harritu egingo zaituzte.



## VISITAS GUIADAS

Si viajáis en grupo y queréis hacer una visita guiada acompañados por un guía profesional esta es vuestra actividad. Una amplia carta de visitas que os sorprenderán.

ERRESERBAK: TURISMO BULEGOAN

## ASTEBURUPASA DURANGON

Zatoz asteburupasa Durangora, eta gozatu gure artean. Aukera ezazu non lo egin, eta gainerako guztia guk jarriko dugu: gosariak, bisita audiogidatua, eta, nola ez, durangarron harrera ona.

RESERVAS: EN LA OFICINA DE TURISMO

## UN FIN DE SEMANA EN DURANGO

Ven a disfrutar un fin de semana entre nosotros. Una pequeña salida en la que tú sólo tendrás que elegir el alojamiento; los desayunos, la visita audioguiada por Durango y la hospitalidad la ponemos nosotros.



## IBILBIDEAK

Hainbat ibilbide proposatuko dizkizugu, oinez nahiz BTTz (mendi-bizikletaz) egitekoak. Hartara, gure paisaia ederretan murgilduko zara, eta esperientzia berriak biziko dituzu, naturarekin bat eginda.

## RUTAS

Te proponemos una serie de rutas a pie o rutas BTT (bicicleta de montaña) que te acercarán a nuestros maravillosos paisajes y te permitirán vivir nuevas experiencias en contacto directo con la naturaleza.



# DURANGO






**Durangok 29.000 biztanle baino gehiago ditu, Durangaldea eskualdearen burua da, eta Euskadiko txoko ederrenetakoa da.**

**Durango Euskal Autonomia Erkidegoko erdigune geografikoan dago, eta mendi artean egonda, leku ezin hobea da bisitariek mendien berdetasuna zein itsasoaren urdintasuna ezagutzeko, baita hiririk garrantzitsuenak bisitatzeko ere, hala nola Bilbo, Donostia eta Gasteiz.**

Durango, con más de 29.000 habitantes, es cabecera de la comarca de Durangaldea, una de las zonas más bellas de Euskadi.

Está situado en el centro geográfico de Euskadi y es el lugar idóneo para descubrir el verdor de las montañas, el azul del mar y las ciudades más importantes del Pais Vasco: Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria-Gasteiz.

| | |
|---|---|
| 34 km | BILBOKO AIREPORTUA (LOIU) • AEROPUERTO DE BILBAO |
| 30 km | BILBO-BILBAO |
| 42 km | VITORIA-GASTEIZ |
| 69 km | DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN |

# URKIOLAKO PARKE NATURALA
# PARQUE NATURAL DE URKIOLA

URKIOLAKO PARKE NATURALA • PARQUE NATURAL DE URKIOLA: 94 681 41 55



**Urkiolako Parke Naturala Durangotik 8 km-ra dago. Inguru ederra da benetan, geografiari eta paisaiari dagokionez interes handikoa. Naturarekin hartu-emanetan jartzera eta egundo bizi gabeko sentsazioak bizitzera gonbidatzen gaitu.**

**Naturaz, oinezko zein BTTko ibilbideez eta eskaladaz gozatuko duzu.**

Durango se encuentra a tan sólo 8 km del Parque Natural de Urkiola, una zona de gran belleza e interés geográfico y paisajístico que nos invita a tomar contacto con la naturaleza, así como a descubrir nuevas sensaciones.

Disfrutarás de la naturaleza, de múltiples recorridos a pie y en BTT y de la escalada.







# LANDAEDERRA

**ERRESERBAK • RESERVAS: 94 603 00 30 - INFORMAZIOA@DURANGO.EUS**

**Mugarraren magalean, mendi-aterpetxe bat dago. Leku zoragarria da mendizaleentzat eta BTT zaleentzat, edo besterik ez bada, lagunartean barbakoa bat egiteko.**

El albergue de montaña, situado en las faldas del monte Mugarra, es un espacio ideal para montañeros, amantes de la BTT o simplemente para hacer una buena barbacoa con amigos.



# EZINBESTEKO BISITAK!

# NO TE LO PUEDES PERDER!



**Durangoko herrigune historikoa monumento-multzo izendatu zuten 1997ko urtarrilaren 14an. Bertako kaleetatik ibiltzean, Erdi Aroko uriarekin egingo dugu topo. 700 urte baino gehiago dituzten elementuen bidez, historian atzera egingo dugu.**

Un paseo por el casco histórico de Durango, declarado Conjunto Monumental el 14 de enero de 1997, nos llevará a descubrir una villa de origen medieval, una villa con más de 700 años.

# TURISMO BULEGOA · OFICINA DE TURISMO

## & KURUTZESANTU MUSEOA
## MUSEO KURUTZESANTU

**Turismo Bulegoa Kurutzesantu Museoan dago. Museo hau da Kurutziaga gurutzearen gordeleku eta babeslekua. Gurutze gotiko eder horrek Monumentu historiko-artistikoaren kategoria du. XV.mende bukaera eta XVI.mende hasiera artean altxatu zuten.**

La Oficina de Turismo está situada en el Museo Kurutzesantu. El museo acoge la Cruz de Kurutziaga, crucero de extraordinaria belleza gótica que ostenta la categoría de Monumento Histórico Artístico. La Cruz de Kurutziaga fue levantada a finales del s. XV o principios del XVI.

## HASI GAITEZEN DURANGOKO LEKU INTERESGARRIENAK EZAGUTZEN!

## COMENZAMOS AQUÍ UN RECORRIDO POR LOS LUGARES MÁS DESTACADOS A VISITAR



# KURUTZIAGA KALEA
## CALLE KURUTZIAGA

**Kale honetan Garai, Olalde eta Gorostiza jauregiak, Jesuiten eliza eta iturri ikusgarria daude. Horrez gain, 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketak Durangon utzitako aztarnak ikusi ahalko ditugu, eta baita 'Memoriarako Espazioa' monumentua ere.**

Nos encontramos en esta calle los palacios Garai, Olalde y Gorostiza, la iglesia de los Jesuitas y la fuente monumental. Además podemos observar las huellas dejadas por el bombardeo a la villa de Durango el 31 de marzo de 1937 así como el monumento "Espacio para la memoria".







# URIBARRIKO ANDRA MARIA BASILIKA
## BASÍLICA DE SANTA MARÍA DE URIBARRI

**Monumentu nazionala da, eta Euskal Herriko obrarik apartenetakoa da.**

**Haren portiko ederra nabarmentzen da, Euskal Herriko handiena. Basilikaren barnealdeak ere merezi du geldialditxo bat.**

La Basílica de Santa María de Uribarri ostenta la categoría de Monumento Nacional y es una de las obras más monumentales del País Vasco.

Destaca su bello pórtico, es el más grande del País Vasco. El interior de la Basílica merece una visita detenida.





# MERKATUA
## MERCADO

**Benetan merezi du merkatu plaza bisitatzea, haren arkitekturari erreparatzea, eta bere postuak ikustea.**

Merece la pena entrar al mercado, admirar su arquitectura y recorrer sus puestos.




# ZUGAZA ZINEMA
## CINE ZUGAZA

**Merkatuaren alboan, Zugaza zineman, askotariko filmak ikusi ahal izango dituzu.**

Muy cerca del mercado podrás disfrutar de una sesión en el cine Zugaza.

WWW.CINEZUGAZA.ES





# EZKURDI PLAZA

**1882an trenbidea eraikitzean, plaza horretan bizimodu soziala eta jai-giroa piztu ziren.**

**XIX. mende bukaeraz geroztik, Durangoko burgesiak bertan eraiki zituen eraikin historizistak eta erregionalistak; hain zuzen, Zumalakarregi kalean.**

La llegada del ferrocarril en 1882 acentuó la vida social y festiva de esta plaza. Desde finales del siglo XIX la burguesía local construyó aquí los hermosos edificios historicistas y regionalistas de la calle Zumalakarregi.



## PILOTALEKUA
### FRONTÓN

**Aipagarriak dira zesta-puntako partiduak.**

Destacan en él los partidos de Cesta Punta.

# SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA

WWW.DURANGO-UDALA.NET/SANAGUSTIN

**Arte eszenikoen udal espazioa da. Bertan, programazio egonkorra dago irailetik ekainera, eta adin guztietarako antzerkia, dantza, zirkoa eta musika eskaintzen dute. Horrez gain, San Agustineko programatzaileek 'Uda kalean bizi' programa antolatzen dute udan, eta herriko parke eta plazetan izaten dira ikuskizunak.**

Es el espacio municipal dedicado a las artes escénicas, programación estable de septiembre a junio de teatro, danza, circo y música para diferentes públicos. También organiza un programa de artes de calle en verano por diferentes parques y plazas de la localidad llamado "Uda kalean bizi".





# ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
## MUSEO DE ARTE E HISTORIA

SARRERA DOAN • ENTRADA LIBRE • 94 603 00 20

**Museo horrek dituen funts artistikoak askotarikoak dira: alde batetik, historikoki interesgarriak diren elementuak daude; eta, bestetik, baita artelan modernoak ere. Bertan, ikusgai dago XV.mendeko Durango uriaren maketa.**

Los fondos del museo son muy variados, recogiéndose elementos de interés histórico y obra artística moderna. Se exhibe una maqueta de Durango en el s. XV.



# UDALETXEA
## AYUNTAMIENTO

**Udaletxea XVI. mendean eraiki zuten, eta Bizkaiko zaharrenetarikoa da.**

**1945ean berreraiki eta handitu egin zuten, baita “Comédie Française” gogora ekartzen duten fatxadaren jatorrizko pinturak berreskuratu ere.**

El Ayuntamiento, del siglo XVI, es uno de los más antiguos de Bizkaia.

Fue rehabilitado y ampliado en 1945, recuperando en su fachada una copia de las pinturas originales que recuerdan a la “Comédie Française”.



# LARIZ TORRE

**Lariz Torre hiri jauregia errenazentista estilokoa da, eta kalitate handiko eraikuntza eta dekorazio aberatsa ditu. XV.mende amaieran eraiki zuten, eta diotenez, Isabel Katolikoak bertan egin omen zuen lo 1483an.**

Lariz Torre se presenta como un palacio urbano renacentista de gran calidad constructiva y rica decoración. Se levantó a finales del siglo XV. Se cree que en esta torre pudo pernoctar Isabel la Católica en 1483.





# SANTA ANAKO ARKUA ETA ELIZA

## ARCO E IGLESIA DE SANTA ANA

**Durangoko hiribildua inguratzen zuen harresiko sei ateetatik gelditzen den bakarra da Santa Anako arkua, estilo barrokokoa.**

**Ondoan, Santa Anako eliza dago; hau ere barrokoa, apaingarri gutxi duen arren. Herriko merkatua eliza aurreko plazan egin zen urteetan.**

El arco de Santa Ana, de estilo barroco, es el único testimonio de las seis puertas con las que contaba la antigua muralla que rodeaba en tiempos pasados la villa.

Junto a ella, la iglesia de Santa Ana, aunque sobria y severa, también de estilo barroco, fue testigo durante mucho tiempo del mercado de la villa.





# PINONDO

**Pinondo Durangoko inguru ederrenetakoa da, Mañaria errekaren alboan.**

**Ingurune honetan aipagarriak dira Pablo Pedro Astarloaren eskultura, gurutzea eta iturri monumentala.**

Es uno de los entornos más bellos de Durango, junto al río Mañaria.

Destacan la escultura de Pablo Pedro Astarloa, la cruz de término y la fuente monumental.



# KOMENTUKALEA

**Komentukaleak (Calle Conventos), izen hori hartu zuen bertan bi komentu daudelako: Santa Susana eta San Frantzisko.**

Komentukale o Calle Conventos, adquiere su nombre por la ubicación en la misma del Convento de Santa Susana y el Monasterio de San Francisco.



BISITAK • VISITAS: 608 059 501

## ASTRONOMIA IKASGELA
## AULA DE ASTRONOMÍA

**Lurrarekin zerikusia duen guztia ezagutuko duzu: eguzki-erlojuak, ilargia eta haren faseak.**

Conocerás todo lo relacionado con la tierra, el sistema solar, las estrellas y las constelaciones.



# TABIRAKO SAN PEDRO ELIZA
## IGLESIA DE SAN PEDRO DE TABIRA

**Bertako tradizioaren arabera, Tabirako San Pedro Bizkaiko eliza zaharrenetakoa da.**

**Tabirak bi osagai ditu: Erdi Aroko San Pedro eliza, eta Errosarioko ermita, XVIII. mendean iparraldean atxikia.**

San Pedro de Tabira es, según la tradición local, una de las iglesias más antiguas de Bizkaia.

Está constituida por la suma de dos elementos diferentes: la iglesia medieval de San Pedro y la ermita del Rosario, adosada por el flanco norte, desde que se finalizó en el s. XVIII.

# LANDAKO GUNEA

WWW.LANDAKOGUNEA.COM

**Landako Gunea azokagune bat da, eta bertan, mota guztietako aisialdi-jarduerak eta ikuskizun publikoak antolatzen dira. Horien artean, Durangoko Azoka da aipagarriena.**

Landako Gunea es un espacio ferial donde se realizan actividades recreativas de todo tipo y espectáculos públicos. Destaca la Durangoko Azoka.

# PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

**Kafe Antzokia da, bizia eta dinamikoa, eta kultur programazioaz gain, ostalaritza -zerbitzua ere badu.**

Es un Café Teatro vivo y dinámico que además de su programación cultural ofrece servicios de hostelería.

WWW.PLATERUENA.EUS







## MADALENAKO BASELIZA
### ERMITA DE LA MAGDALENA

**Ermita hau Madalenaren eliza zaharra eta San Lazaro ospitalea zeuden lekuan eraiki zuten, XIX. mendearen hasieran.**

Construída a principios del siglo XIX, se enclava en el lugar en el que se encontraba la antigua iglesia de la Magdalena y el Hospital de San Lázaro.



## MIKELDIKO IDOLOA
### IDOLO DE MIKELDI

**Durangon aurkitutako eskultura hori, teoria batzuen arabera, Kristo aurreko III. mendekoa da, eta lau hankako animalia irudikatzen du.**

Escultura descubierta en Durango, hay teorías que sostienen que es del s.III a.C. y que representa un animal cuadrúpedo.

# AGENDA

## WWW.TURISMODURANGO.NET

**NEGUA • INVIERNO**




## DURANGOKO AZOKA

**Durangoko Azoka Euskal Herriko kultur ekitaldirik garrantzitsuena da. Abendu hasieran egiten da, eta ezinbesteko hitzordu bihurtu da euskal kulturan.**

**Idazleek, musikariek, euskal-tzaleek, komunikabideek... Durangoko Azokan, kulturgintzako eragile guztiek erreparatzen diote Durangori.**

Es la Feria Cultural más importante de Euskal Herria. Se celebra a primeros de diciembre y supone una cita ineludible.

Escritores, músicos, amantes de la cultura, euskaltzales, medios de comunicación... todos miran a Durango en la Durangoko Azoka.

**WWW.DURANGOKOAZOKA.EUS**





# EUSKAL DENDA

**Euskal Denda euskal artisautzaren azoka da. Abenduan egiten da, Durangoko Azokarekin batera, eta artisautzaren erreferentea da Euskal Herrian.**

Es la feria del sector artesanal vasco, se celebra en diciembre coincidiendo con la Durangoko Azoka y es un referente de la artesanía en Euskal Herria.

# GABONAK
## NAVIDAD

**Aipagarriak dira izotz-pista, Gabon-kanten jaialdia, Haurren Gabonetako Parkea, Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, eta Erregeen kabalgata.**

Destacan la pista de patinaje sobre hielo, los festivales de Villancicos, el Parque Infantil de Navidad, el desfile de Olentzero y Mari Domingi y la Cabalgata de Reyes.



**Azoka horretan delikatessen jaki bikainenak dastatzeko aukera dago, baita euskal panoraman, estatuan eta nazioartean garrantzitsuak diren upategietako ardoak ere.**

Es una feria en la que podrás degustar los más exquisitos alimentos delicatessen y vinos procedentes de las bodegas más importantes del panorama vasco, estatal e internacional.

# ARDO SALTSAN

## ARDO ETA DELIKATESSEN AZOKA

## FERIA DEL VINO Y LA DELICATESSEN









## JUDO TXAPELKETA
### TORNEO DE JUDO

**Durangoko hitzordu garrantzitsua da, haur eta kadete mailako judolariak tatamira igo eta beren artea erakusteko.**

Judokas de las categorías infantil y cadete se dan cita en Durango para subirse al tatami y mostrar sus artes judokas.

## DUATLOIA
### DUATLÓN

**Proba hori klasikoa da jada Durangon.**

Una prueba que se ha convertido en todo un clásico.



ASTE SANTUA • SEMANA SANTA

## PASIÑUE
### LA PASIÓN

**Aste Santuan, tradiziozko Durangoko Pasiñue egiten da.**

**Santa Anako arkuaren inguruan, protagonistek beste garai batera garamatzate antzeztutako eszenekin.**

En Semana Santa se celebra la tradicional Pasión de Durango.

En la plaza de Santa Ana los protagonistas reviven escenas que nos transportan a otro tiempo.



## TOPAKLOWN

WWW.TOPAKLOWN.COM



**Klownaren inguruko topaketa San Agustin Kultur Gunean egiten da urtero, Aste Santuan. Topaklownen klown profesionalak, afizionatuak eta klowna gustatzen zaien pertsonak batzen dira. Emozioz eta umorez betetako ikastaroak eta ikuskizunak egoten dira.**

Es un lugar de encuentro para las personas que practican el Clown, profesionales o aficionados/as, o sienten curiosidad por él. Cursos y espectáculos llenos de emoción y buen humor. Se celebra cada año durante la Semana Santa.



## DANTZAREN EGUNA
## DÍA DE LA DANZA

**Dantza klasiko, euskal dantza, funky, breakdance zein flash mob emanaldiek musikaz eta dantzaz zipriztintzen dituzte Durangoko kaleak.**

Actuaciones de danza clásica, danzas vascas, funky, breakdance y flash mobs llenan las calles de música y baile.



UDA • VERANO

# UDA KALEAN BIZI

**Udan, musika, antzerki, zirku eta dantza emanaldiek hartzen dituzte Durangoko kaleak. Plazak, parkeak eta kaleak kulturaz jantzen dira.**

En verano espectáculos de música, teatro, circo o danza se trasladan a plazas, parques o calles y las inundan de cultura.



## EUSKAL JAIAK

**Hiru aste irauten du euskal kulturari eskainitako jaialdi honek. Euskal Herriko dantzak, txistu, zesta-punta-ko partiduak eta abar izaten dira.**

Tres semanas dedicadas a la cultura euskadun. Danzas vascas, txistu, cesta punta y mucho más.



## EMAKUMEEN SARIA

**Emakume txirrindularien lasterketa profesionala da: guztira, 113 km-ko ibilbidea.**

Es una carrera ciclista femenina profesional, completa un total de 113 km.



## DURANGO KLASIKOAK RALLYA

### RALLYE CLÁSICOS DURANGO

**Duela hamar urtetik gora, egun biren buruan, auto klasiko onenak garrantzi handiko rally honetan lehiatzen dira.**

Con más de 10 años de antigüedad, durante dos días los mejores coches clásicos disputan este rally de gran relevancia.





# SAN FAUSTO JAIAK
## FIESTAS DE SAN FAUSTO

**Urriaren 13an, San Fausto Durangoko patroiaren eguna dela-eta, herriko jaiak ospatzen dira.**

**Durangaldeko jai-egutegiko azkenak dira, baita garrantzitsuenak ere.**

**Ekitaldi tradizionalenak "Zezenak dira" eta "Artopilen banaketa" dira, besteak beste.**

Las Fiestas de San Fausto, se celebran en torno al 13 de octubre.

Son las últimas y más importantes del calendario festivo del Duranguesado.

Los actos más tradicionales de los "Sanfaustos" son la celebración de los "Zezenak dira" y el "Reparto de artopillek".



# ONDAREAREN JARDUNALDIAK
## JORNADAS DEL PATRIMONIO

**Europa osoan egiten dira, eta ondarea herritarrei hurbiltzea dute helburu. Urrian egiten dira.**

Se celebran en octubre en toda Europa con el objetivo de acercar el patrimonio a la ciudadanía.









WWW.BEGIRAPHOTO.COM

# BEGIRA PHOTO

**Begira Photok XXI. mendeko argazki sorkuntza artistikoa eta egungo pentsamendua sustatu eta zabaltzen du.**

Begira Photo fomenta y difunde la creación artística y el pensamiento contemporáneo en torno a la imagen fotográfica en el siglo XXI.

# MUSIKA HAMABOSTALDIA
## QUINCENA MUSICAL

**Musika hamabostaldia musika klasikoa biltzen duen egitaraua da.**

La quincena musical es una programación dedicada a la música clásica.





# EROSKETAK

## DE COMPRAS



**Durangok merkataritza aberatsa du, askotariko sektoreak, produktuak eta estiloak biltzen dituena. Zatoz Durangora, eta ibili dendarik denda eta erakusleihoz erakusleiho. Gainera, merkatu plaza dago, kalitateko produktuak erosteko.**

Durango goza de un amplio comercio, variado en sectores, productos y estilos que te invitamos a conocer de primera mano recorriendo sus escaparates y sus tiendas. Además, dispone de una plaza de mercado que ofrece variedad y calidad.

## PINTXO-POTE

**Zatoz osteguneko pintxo-potera eta proba itzazu pintxo goxoak.**

Prueba los deliciosos pintxos y atrévete con el pintxo-pote de los jueves.





# ERAMATEKO
## PARA LLEVAR

**Eramazu etxera bertako gastronomia.**
Llévate la gastronomía local a casa.

## ERRESERBAK • RESERVAS
## WWW.BAPOBAPO.COM

**Alberdi Catering**
94 681 44 00

**Cafés la Tostadora**
94 681 48 36

**Chocolatería Aukan**
94 685 36 92

**Croqueta y presumida**
94 621 55 53

**Helados López**
www.lopezizozkiak.esmiweb.es

**Las Brasas**
94 603 31 08

**Maobi**
94 620 27 61

**Pio-Pio**
94 681 58 28 / 94 620 42 03

**Saltsan**
94 620 04 27

**Sushi Gallery**
94 652 59 86

**Vinoteca Gurrea**
94 681 41 75





# JATETXEAK
# RESTAURANTES

**ERRESERBAK • RESERVAS: 94 603 39 38**

## ANBOTO

**Etxeko janaria. Alde Zaharrean. Kazolatxoak, anoak, pintxoak eta bokatak. Berezitasuna: onddoen nahaskia. Egun osoan zabalik. Edukiera: 60 pertsona.**

Comida casera. En el casco antiguo. Cazuelitas, raciones, pintxos variados y bocadillos. Especialidad: Revuelto de hongos. Cocina abierta todo el día. Aforo: 60.

Goienkalea, 14
94 681 10 20

## ASADOR BOTAFUMEIRO

**Etxeko sukaldaritza eta Galiziako janaria. Berezitasunak: okela txingarretan erreta eta olagarroa. Edukiera: 90 pertsona.**

Comida casera y cocina gallega. Especialidad: carne a la brasa y pulpo. Aforo: 90.

Olleria Kalea, 8-10
94 620 35 71



## ASADOR LAUBURU ERRETEGIA

**Erdi kiloko txuletoia txingarretan errea. Gosari bereziak. Edukiera: 55 pertsona.**

Chuletas de medio kilo a la brasa. Desayunos especiales. Aforo: 55.

Montebideo, 23-25
94 600 44 48

## BODEGON LANDAKO

**Mairutar pintxoak, produktu iberikoak, askotariko kazolatxoak. Edukiera: 25 pertsona.**

Pintxos morunos, producto ibérico, cazuelitas variadas. Carta. Aforo: 25.

Txibitena Auzunea, 12
94 681 19 40

## BODEGÓN MONTORRETAS

**Etxeko janaria: Txuletoia, bakailaoa. Askotariko tortilak. Gozogintza. Pintxoak, kazuelatxoak, errazioak, askotariko ogitartekoak. Industrialdean kokatua. Edukiera: 120**

Comida casera. Chuletón, bacalao, tortillas variadas. Repostería. Pintxos, cazuelitas, raciones, bocatas variados. Ubicado en zona industrial. Aforo: 120

Pol. Ind. Montorretas, Aliendalde, 9 E
94 646 27 26

## BODEGUILLA URKO

**Berezitazunak: txuleta eta bakailaoa. Kazolatxoak, entsaladak eta plater konbinatuak. Lan egunetan bakarrik afariak. Asteburuetan, bazkariak eta afariak. Menu berezia.Edukiera: 50**

Especialidad: txuleta y bacalao. Raciones, ensaladas, platos combinados. Entre semana sólo cenas. El fin de semana comidas y cenas. Menú especial. Aforo: 50

Urko, 3
94 681 30 12

## DURANGOKO BATZOKIA

**Kokaleku onean. Etxeko sukaldaritza tradizionala. Menuak. Edukiera: 50 pertsona.**

Bien situado. Comida tradicional casera. Menús. Aforo: 50.

Zumalakarregi Kalea, 6
94 465 77 40

## GAZTELUA

**Kokaleku onean. Jantoki txikia, lasaia eta goxoa. Berezitasunak: Idi-buztana eta arrain freskoa plantxan. Edukiera: 31 pertsona.**

Bien situado. Comedor pequeño, pero acogedor e íntimo. Especialidades: Rabo de buey y pescados frescos a la plancha. Comidas por encargo. Aforo: 31.

Herriko gudarien kalea, 1
94 681 67 22

## GORROTXA

**Etxeko janaria. Euskal sukaldaritza tradizionala. Edukiera: 75 pertsona.**

Cocina casera. Cocina tradicional vasca. Aforo: 75.

Askatasun etorbidea, 31
94 681 03 68

## GRAN HOTEL DURANGO

**Gastronomia beti izan da Gran Hoteleko berezitasuna. Azokako sukaldaritza prezio onean, tradizioko elaborazioak, zerbitzu eta instalazioek harrituko zaituzte. Edukiera: 280 pertsona.**

La gastronomía siempre ha brillado en el Gran Hotel Durango. Cocina de mercado a precios razonables, elaboraciones tradicionales acompañadas de un servicio e instalaciones que te sorprenderán. Aforo: 280.

Gasteiz Bidea, 2
94 621 75 80

2017an Estatuko pintxo eta tapa txapelketan saria jaso zuen
Premiado en el campeonato estatal de pintxos y tapas 2017

2017



## KOBIKA

**Oso jatetxe ona, hainbat sari irabazitakoa; adibidez: Euskadiko Probintzia arteko Bakailao Txapelketa 2018 eta Miniature Pintxos Congres. Euskal sukaldaritza berria. Berezitasunak: bertako arraina eta okela. Lehiaketako menua ostegunetan. Edukiera: 100 pertsona.**

Muy buen restaurante, con numerosos premios, como el Campeonato interprovincial Euskadi Bacalao 2018 y Miniature Pintxos Congres. Nueva cocina vasca. Especialidad: Pescados y carnes de la tierra. Menú de campeonato los jueves noche. Aforo: 100.

San Ignacio Auzunea, 8
94 681 00 03

## KUKUTZE

**Sukaldaritza tradizionala, euskal sukaldaritza berriaren ukituarekin. Menu bereziak. Edukiera: 90 pertsona.**

Cocina tradicional con un toque de nueva cocina vasca. Menús especiales. Aforo: 90.

Askatasun etorbidea, 19
94 465 73 88

## LA OFICINA

**Okela, arraina, mariskoa eta koktelgintza. Terraza.**

Carnes, pescados, mariscos y coctelería. Terraza.

Herriko Gudarien kalea, 4 -6
94 681 73 48





## LAPUR ERROTA

**Hiru girotan banatzen da: Jatetxe-erretegia, pizzeria-hanburgeseria eta pub. Berezitasuna: Txingarretan egindako sukaldaritza. Edukiera: 60.**

Se divide en 3 ambientes: restaurante-asador, pizzería-hamburguesería y pub. Destaca la cocina a la brasa. Aforo: 60.

Fray Juan de Zumarraga, 31

94 681 54 44

## LEANIZ

**Janari italiarra. eta etxeko postreak. Entsaladak, pastak, pizzak, okelak. Etxera eramateko zerbitzua gauez. Pastak eta produktuak zeliakoentzat. Edukiera: 55 pertsona.**

Comida italiana y postres caseros. Ensalada, pastas, pizzas, carnes. Servicio a domicilio por las noches. Pastas y productos para celíacos bajo encargo. Aforo: 55.

Alluitz, 4

94 620 37 11

## LES VILLES

**Eguneko menua. Asteburuetan rabak, txopitoak eta kroketak. Gosariak, meriendak eta pintxo eskaintza zabala. Edukiera: 70 pertsona.**

Menú del día. Fines de semana rabas, chopitos y croquetas. Desayunos, meriendas y gran variedad de pintxos. Aforo: 70.

Kanpantorrosteta, 1

94 466 84 82

## MESOI BARRIA

**Etxeko sukaldaritza. Eguneko menua eta anoak. Berezitasunak: tortillak eta kroketak. Giro euskalduna. Alde zaharrean kokatua. Edukiera: 30 pertsona.**

Comida casera. Menú del día y raciones. Especialidades: tortillas y croquetas. Ambiente euskaldun. Situado en el Casco Viejo. Aforo: 30.

Kalebarria, 1

94 603 03 41

## MOMOTXO

**Eguneko menua, etxeko kazolatxoak, hanburgesak, ogitartekoak, plater konbinatuak, entsaladak. Terraza. Edukiera: 45**

Menú del día, cazuelitas caseras, hamburguesas, bocadillos, ensaladas, platos combinados. Terraza. Aforo: 45

Durangoko Plateruen plaza, 12

94 603 07 91

## MANOLO

**Sasoiako janaria eta kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio ona eskaintzen du. Berezitazunak: kafea, iberikoen taulak, bakailaoa eta haragia platxan. Tratu atsegina. Edukiera: 30**

Cocina de temporada y buena relación calidad -precio por encargo. Especialidad en café, tablas de ibéricos, bacalao y carnes a la plancha. Trato esmerado. Aforo: 30

Zabalarra, 11
94 681 10 41

## OLAJAUREGI

**Betiko sukaldaritza hobetua eta findua. Etorkizuneko sukaldaritza, berritua eta bizia. Goi-mailako sukaldaritza eskuragarri. Edukiera: 165/90/60 pertsona.**

Cocina de siempre perfeccionada y refinada. Cocina del mañana creativa e ingeniosa. La alta cocina a tu alcance. Aforo: 165/90/60.

Kurutziaga, 52
94 620 08 64

## PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

**Kafe antzokia. Sukaldaritza tradizionala, euskal sukaldaritza modernoaren ukituarekin. Eguneko menua. Giro euskalduna. Edukiera: 150 pertsona.**

Café Teatro. Cocina tradicional con un toque de nueva cocina vasca. Menú del día. Ambiente euskaldun. Aforo: 150.

Landako etorbidea, 4 A
94 603 03 00

## SIDRERIA KUPELA SAGARDOTEGIA

**Sagardotegiko menua enkarguz. Asteburuko menua eta menu berezia. Edukiera: 50 pertsona.**

Menú de sidrería por encargo. Menú fin de semana y menú especial. Aforo: 50.

Saibi, 2
94 681 66 58





## SIGLO NUEVO

**Txinako sukaldaritza. Askotariko menuak asteburuetan. Etxera eramateko zerbitzua. Edukiera: 60 pertsona.**

Comida china. Menús variados el fin de semana. Servicio a domicilio. Aforo: 60.

Montevideo, 24
94 620 40 71

## SUSHI

**Asiako eta Txinako sukaldaritza. Tabernak terraza handia dauka. Edukiera: 60 pertsona.**

Comida asiática y china. Bar con amplia terraza. Aforo: 60.

Magdalena Plaza, 5
94 620 33 06



## TABIRA ETXE

**Plater konbinatuak, ogitartekoak, kazolatxoak eta entsaladak. Janariak enkarguz. Karta ere badago. Edukiera: 60 pertsona.**

Platos combinados, bocadillos, cazuelitas y ensaladas. Comidas por encargo. También a la carta. Aforo: 60

Tabira, 33

94 681 02 41

## TXAKOLI LARRINAGATXU

**Landa-eremuan kokatua. Euskal sukaldaritza tradizionala. Karta. Sasoiko platerak. Etxeko postreak. Edukiera: 90 pertsona.**

Situado en zona rural. Cocina Tradicional vasca. A la carta. Platos de temporada. Repostería casera. Aforo: 90.

Larrinagatxu auzoa, 4

94 681 49 66

## THE GALLERY

**Eguneko menua. Simply merkataritza-zentroaren barruan. Edukiera: 50 pertsona.**

Menú del día. Dentro del centro comercial Simply. Aforo: 50.

Montorreta, 1 (Simply)

94 675 77 50

## TXANTONESA

**Alde zaharrean kokatua. Merkatuko sukaldaritza eta sasoikoa. Berezitasuna: txuleta. Pintxo eskaintza kreatiboa. Edukiera: 70 pertsona.**

En el Casco Viejo. Cocina de mercado y estacional. Especialidad: chuletón. Barra de pintxos creativa. Aforo: 70.

Goienkalea, 3

94 620 39 27

## XIXILU

**Berezitasunak: txipiroiak tenpuran, paleta iberikoa, barazki-parrillada. Askotariko entsaladak. Edukiera: 22 pertsona.**

Especialidad: chipirones en tempura, paletilla ibérica, parrillada de verduras. Ensaladas variadas. Aforo: 22.

Oiñiturri, 4

94 681 10 99



94 603 39 38

## OSTATU PROGRAMA BEREZIAK

### PROGRAMAS ESPECIALES DE ALOJAMIENTO

TURISMO@DURANGO.EUS

# OSTATUAK

## ALOJAMIENTOS

★★★★

Gasteiz Bidea, 2
94 621 75 80
reservas@granhoteldurango.com
www.granhoteldurango.com
Reg.: HBI01105



### GRAN HOTEL DURANGO

**Gozatu guztiz berritutako instalazioz, zure egonaldia ahaztezina izango da. Durango Sport Klub & Spa by Metropolitan berria, kanpoko terraza berria, gastronomia eta logela berrituak, dena prest dago zeuk goza dezazun. Txundituko zara!. Edertasun tratamenduak edo terapeutikoak, eta kanpoko eta barruko igerilekua dituzu eskura. Gainera, ehun urte dituen magnolio baten gerizpean terraza bat du; Itxaroten zaitugu.**

Disfruta de unas renovadas instalaciones que harán que tu estancia sea inolvidable. Nuevo Durango Sport Club & Spa by Metropolitan, nueva terraza exterior, reconocida gastronomía y renovadas habitaciones te esperan para ser disfrutados y sorprenderte. Tratamientos de belleza o terapéuticos, piscina interior y exterior, terraza a la sombra de un magnolio centenario; Te esperamos.

★★★

Kurutziaga, 52
94 620 08 64
info@olajauregi.com
www.olajauregi.com
Reg.: HBI01255



### HOTEL OLAJAUREGI

**Arkitektura orekatuarekin, Olajauregi Hotelak logela-zerbitzu erosoa eta amultsua eskaintzen dizu. Ingurune ederra. Ametsetako lekua da.**

De arquitectura armoniosa, el hotel Olajauregi dispone de un servicio de habitaciones cómodo y cálido. Precioso entorno. Un lugar para soñar.





H ★

Ollería, 8
94 621 60 36
hotelocamino@gmail.com
www.hotelocamiño.com
Reg.: HBI01145



## HOTEL O CAMIÑO

**Hotel O Camiñok kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio ona eskaintzen du. Uriaren erdian egon arren, gaueko zaratatik urrun dago. Tratua etxekoa da eta jatetxe-zerbitzua eskaintzen du.**

Hotel donde encontrar buena relación calidad-precio. Situado en el corazón de la villa pero alejado del bullicio de la noche. Trato familiar y servicio de restaurante.

P ★★

Intxaurrondo, 54
94 621 60 21
errota@errotaostatua.eus
www.ibaizabalikastola.eus
Reg.: HBI01136



## ERROTA PENTSIOA

**Tabira auzo historikoan dago, bizitegi-auzo lasai batean. Bertan, tratu beroa eta familiartekoa jasoko duzu.**

Situado en el histórico barrio de Tabira, en un entorno tranquilo y residencial, donde encontrará un trato cálido y familiar.

P ★

San Agustinalde, 2
94 621 54 88
info@juegobolos.com
www.juegobolos.com
Reg.: HBI00070



## JUEGO BOLOS

**Durangoko herrigune historikoan dago. Duela gutxi berriztatu zuten, estilo modernoan apainduta dago eta atsegina da.**

En pleno casco histórico de Durango, Juego Bolos ha sido recientemente reformado con un estilo moderno y acogedor.

B&B

Eguzkitza, 12B
94 465 60 75
info@eguzkibandb.com
www.eguzkibandb.com
Reg.: LBI0015



## EGUZKI BED & BREAKFAST

**Etxean bezala sentiaraziko zaituen "Bed&Breakfast" beroa eta hurbila, Durangoko landa gunean. Hiru logela atsegin dauzka, eta gelaka zein osotasunean egin daiteke erreserba. Haien bezeroei Tuk-Tuk-ez ibilbideak eskaintzen dizkiete.**

Siéntete como en casa en este 'B&B' en una zona rural de Durango. 3 acogedoras habitaciones para alquilar por separado o juntas. Ofrecen paseos en Tuk-Tuk a sus clientes.

# TURISMO DURANGO



Kurutziaga, 38 • (34) 94 603 39 38
turismo@durango.eus

## ORDUTEGIA

**Egunero: 10.00 - 14.30**

**Asteazkena, osteguna eta ostirala: 10.00 - 14.30 eta 16.00 - 18:30**

**Urtarrila, otsaila, azaroa, abendua: astelehenak itxita.**

**Larunbata eta igande arratsaldetan, museoa bakarrik zabalik (16.30-18.30).**

## HORARIO

Todos los días: 10.00 - 14.30

Miércoles, jueves y viernes: 10.00 - 14.30 y 16.00 - 18:30

Enero, Febrero, Noviembre, Diciembre: lunes cerrado.

Sábados y domingos por la tarde, sólo el museo (16.30 - 18.30)

## WWW.TURISMODURANGO.NET

durango
gustura, a tu gusto

Bizkaia

EUSKADI

**Durangoko Turismo Bulegoak argitaratua**
**10. argitalpena, 2018, 10.000 ale**
**Lege gordailua: BI-854-2018**

Edita Oficina de Turismo de Durango
Edición 10ª, 2018, 10.000 ejemplares
Depósito legal: BI-854-2018

DISEINUA-DISEÑO: BIKO KOMUNIKAZIOA
ARGAZKIAK-FOTOGRAFÍAS:TXELU ANGOITIA ETA KEPA AGINAKO